



Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Aldizkaria

20. alea, 2013ko otsaila



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK.....	2
ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA.....	2
BALIABIDEAK	3
ALIA NTZAK	3
IKASLEAK.....	5
ESKOLAK ANTOLATUTAKO EDO BERMATUTAKO JARDUERAK	5
ELKARRIZKETAK.....	6
UPV/EHUKO INTERESEKO AKORDIOAK ETA ERABAKIAK.....	8
INTERESEKO ARAU OROKORRAK.....	9

[Para acceder al contenido en Castellano, pulsa aquí.](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKEZPENA

Eskolako 20. aldizkari elektronikoan 2013ko lehenengo hilabeteetako konturik aipagarrien berri ematen dugu. Martxoaren 13an egingo diren Ikastegiko zuzendaria aukeratzeko hauteskundeak nabarmendu behar da bereziki. Eskola Batzarrak hartutako akordioei, egindako ikastaroei, sinatutako hitzarmenei buruzko informazioarekin batera, urtean zehar egingo diren zenbait ekintza ere aipatzen dugu. Aldi honetan *Lan Harremanak* aldizkariaren ale berria ere argitaratu da. Aldizkari elektronikoak hemendik aurrera egitura berria izango du. “Baliabide eta aipamen interesgarriak” atala kendu dugu, aurki argitalpen berri bat aterako dugulako. Bertan interneten argitaratutako gizarte, lan, ekonomia eta beste alor batzuk jorratzen dituzten artikulua eta erreferentzia interesgarriak sartuko ditugu.

Aldizkari hau idazterakoan sexuen arteko berdintasuna gordetzen saiatu gara.

Argitaratzeko zerbaite bidali nahi baduzu egizu helbide honetara (nieves.arrese@ehu.es).

IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Ainhua Saitua irakaslea doktore berria: Pasa den otsailaren 4ean, gure Ikastegiko irakaslea den Ainhua Saituak bere doktorego tesia defendatu zuen. Horren izenburua “*La información sobre recursos humanos en los informes de gestión de las empresas del IBEX-35 entre 2005 y 2009*”, eta Lorea Andicoechea Arondo eta Eneka Albizu Gallastegi doktoreak izan dira zuzendariak. Batzordea José Ignacio Martínez Churiaque, Amaia Maseda García, Begoña Giner Inchausti, José Antonio Laínez Gadea eta Manuel Larrán Jorge doktoreek osatu zuten eta lortutako nota *Gai Cum Laude* izan zen. Zorionak Ainhua!

Bizkaiko Campuseko Batzarrean irakasleen ordezkaritza: Bizkaiko Campuseko Batzarraren Erregelamendu berria onartzearen ondorioz, organo horretan ordezkaritza arauak esandakora moldatu behar da. Zehazki, irakasleen ordezkari kopuruari dagokionez, orain arte ikastegi bakoitzak ordezkari bat izendatzen zuen (14 guztira), baina hemendik aurrera 8 ordezkari dagozkio estamentu horri. Bizkaiko Campuseko Batzarraren urtarilaren 30eko akordioz, IIPko ordezkariak hautatzeko hauteskundeetako deialdia egin zen. Hauteskunde horiek bi fasetan banatzen dira: 1) Ikastegietako Batzarrek Campuseko Batzarrerako bana ordezkari hautagarri izendatuko dute beren kideen artean. 2) Errektoreordeak bileraren deialdia egingo die ikastegietako Batzarrek izendatutako ordezkari hautagarriei, talde-zerrenda bakar, itxi eta ordenatua adosteko helburuaz, bete beharreko postu guztiak hartuko dituen, baita ordezkioak ere. Zerrenda bakarraren inguruan kontsensurik balego, botazioa egingo da bileran bertan. Kontsensurik lortu ezean, epea irekiko da talde-zerrenda itxi eta ordenatua aurkeztu daitezkeen. Otsailaren 27an Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzan irakasle hautagarriekin egindako bileran, kontsensuz, ontzat eman zen aurkeztutako proposamena. Horren arabera, Bizkaiko Campuseko ikastegiak, bakoitzak dituen irakasle kopurua kontuan izanda, lau multzotan sailkatzen dira. Era horretan, IIP gehien duten ikastegiei (lehenengo bi multzokoak: Zientzia eta Teknologia F., Medikuntza eta Odontologia F., Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.) ordezkari bana izango dute. Hirugarren multzoko ikastegiei (Arte Ederren F., Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E., Irakasleen U.E. eta Enpresa Ikasketen U.E.) bi ordezkari dagozkie. Agintaldiaren lehenengo bi urteetan lehenengo bi ikastegietako ordezkariak beteko dute kargua, eta azken bi urteetan beste bietakoek. Azkenik, laugarren multzoko ikastegiei (Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U.E., Lan Harremanen U.E., Erizaintzako U.E., Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T. eta Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Ordezkaritza) ordezkari bakarra izango dute. Ikastegi horiek ere euren artean banatuko dute ordezkarietako ardura eta bakoitza 10 hilabetez izango da Batzarreko kide. Bileran bertan egindako zozketaren arabera honako hau izango da hurrenkera: Lan Harremanen U.E., Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T., Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza U.E., Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Ordezkaritza eta Erizaintzako U.E.

ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA

Eskola Batzarra: 2013ko otsailaren 5eko Eskolako Batzarrak honako akordio hauek hartu zituen: 1.- *Numerus clausus* proposamena onetsi egiten da, aldeko 15 botoekin eta 2 abstentzioekin; 2.- Aho batez onesten da, Nieves Arrese Eskolako ordezkari izatea, Campuseko Batzordean; 3.- Aho batez onesten da, Eskolako Zuzendaria hautatzeko, hauteskundeak deitzea. Era berean onesten da proposatutako egutegia, 16 aldeko boto eta abstentzio batekin; 4.- Aho batez onesten da, hauteskunde batzordea osatzeko egindako proposamena; 5.- 2012ko ekonomia txostena onesten da, 16 aldeko boto eta abstentzio batekin.

Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendaria hautatzeko hauteskundeak: Datorren martxoaren 13an Eskolan ikastegiko zuzendaria aukeratzeko hauteskundeak egingo dira. Hautagaitzak aurkezteko epea iragan ondoren, hautagai bakarra Ángel Elías, oraingo zuzendaria da. Azpimarratu behar da bere garaian Eskola Batzarrak hauteskunde horiek sufragio unibertsalez egitea erabaki zuela. Horren ondorioz, irakasleak, administrazio eta zerbitzueta langileak eta ikasleak daude deiturik hauteskundeetan parte hartzera. Jarraian azaltzen den estekan hautagaiak aurkeztutako hauteskunde-programa irakur daiteke (http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/noticia/05032013_candidatura_direccion/eu_noticia/adjuntos/Hauteskundeetako_egitaraua_2013.pdf). Hauteskundeak egin ondoren eta emaitzak aurkaratzeko epea igarotakoan, martxoaren 20an horien behin betiko aldarrikapena egingo da.

BALIABIDEAK

Lan Harremanak aldizkaria: Argitaratu da *Lan Harremanak* aldizkariaren 26. alea (Lan eta gizarte eskubideak krisi garaietan). Atal monografikoan sei artikulua sartu dira: “*La crisis de los sistemas de regulación en la Unión Europea*” Juan Hernández Zubizarretarena, “*Las reformas del PP: autoritarismo, retórica y restricción de derechos*” Mikel Urrutikoetxea Barrutiarena, “*Las reformas laborales y el arbitraje obligatorio: algunos problemas (reflexiones a propósito del acuerdo de la Comisión Paritaria del Preco de 20 de octubre de 2011)*” Olga Fotinopoulos Basurkorena, “*Las reformas de pensiones en Europa: alternativas negociadas vs. El modelo del Libro Blanco*” Carlos Bravo Fernández eta Enrique Martín-Serrano Jiménezena, “*La reforma de la pensión de jubilación realizada por la Ley 27/2011*” Jaime Fernández Orterena, “*¿Flexibilidad laboral, flexiseguridad o flexplotación?*” José Manuel Quintana Hernándezena. Atal irekia honako artikulua hauek osatzen dute: “*Incongruencias en la regulación de la formación de la persona mediadora*” Jaime de Hoces Utreraena eta “*Propuesta de un modelo explicativo de adecuación de personas a puestos de trabajo basado en la integración de competencias e inteligencias múltiples*” Ángel Olazena. Aztertzen diren gaien gaurkotasuna dela eta aldizkariak prentsan izan du oihartzuna. Zehazki, Gara egunkariko kazetaria den Juanjo Basterrak artikulua bat argitaratu zuen otsailaren 17an “*En época de crisis se vulneran los derechos laborales y sociales para dar más al capital*” titulupean, non *Lan Harremanak* aldizkariaren 26. alearen berri ematen den (<http://gara.naiz.info/paperezkoa/20130217/388361/es/En-epoca-crisis-vulneran-derechos-laborales-sociales-para-dar-mas-capital>). Aldizkaria honako esteka honetan irakur daiteke: http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/informacion/rrll_revista/eu_revista/adjuntos/Lan_harremanak_26.pdf.

2012ko Ekonomia Txostena: Urte horretako aurrekontu osoa 27.201,42 € zen. Gastuak era honetan banatu ziren: ikus-entzunezko ekipoen konponketa, mantentzea eta kontserbazioa (482,78 €); informatikako ekipoen konponketa, mantentzea eta kontserbazioa (2.989,13 €); kopiagintza (2.989,13 €); informatika suntsigarriak (3.628,10 €); irakaskuntzarako materiala (1.861,81 €); beste hornidura batzuk (881,48 €); protokoloa (1.601 €); UPV/EHUko produktuak (534,34 €); ikastaroak antolatzeak (60,65 €); elkarteetako kuotak (300 €); beste gastu batzuk (530,23 €); kopiagintza eta azaleztatze gastuak (3.106,59 €); itzulpenak (831,09 €); beste lan batzuk (3.944,81 €); beste lanabes batzuk (1.756,47 €); informatika ekipoa (2.444,20 €). Aurrekontuz kanpoko gastuak honako hauek izan dira: 609,85 € (posta); 245,55 € (mandatu zerbitzua); 703,76 € (telefono mugikorrak); 1.569,25 € (garbiketa); 1.999,99 € (ikasleria kanpo baliabideak - batxilergoa). EHUNDU programaren bigarren zatitik 1897,40 € jaso ziren eta kalitate programen sustapenerako programatik 4.500 €. Ikastegiak honako material hau erosi zuen: erabilera orokorrerako bi eskuko ordenagailu, artxiborako 3 erakusgailu eta apalak eta zuzendariordetzako bulego baterako gortinak. Azkenik, irakaskuntzarako azpiegituratik honako hau lortu zen: mintegi handirako 25 eserleku-pala, 0,3 ikasgelarako eta zuzendaritzako bilera gelarako bideo-proiektagailu bana eta Westlaw Laboral 24 lizentzien berritzea. Horrez gain, Campuseko Errektoreordetzak idazkaritzako artxiborako apalak eman zituen.

ALIANZAK

Amerika Latinako Multinazionalen Behatokia garatzeko Bakea eta Duintasuna Elkarrekin Lankidetzak Hitzarmena: Bizkaiko Campuseko Batzorde Iraunkorrak, otsailaren 28ko bileran UPV/EHUK aipatu hitzarmena sinatzea onartu zuen. Hitzarmenaren baitan egingo diren jardueren artean honako hauek aipa daitezke: Amerika Latinan enpresa multinazionalak egotearen ondorioen informazioa eta adierazle eguneratuak izango dituen webgunearen eguneroko mantentzea, enpresa multinazionalen ingurumenaren iraunkortasunaren eta genero berdintasunaren aurrean duten erronkaren ikerkuntza, gaztelaniaz eta euskaraz DVD formatua izango duen dokumentala, zeinetan komunikabideak aztertuko diren korporazio-boterearen baliabidea gisa: “*Realidad o ficción: empresas transnacionales, responsabilidad*”

corporativa y medios de comunicación”, euskaraz eta gaztelaniaz koaderno bat zeinetan ikerkuntzarako interes berezia duten gauzak sartuko diren, Amerika Latinako garapenean enpresa multinazionalak duten paperari buruzko mintegia eta Hegoa Institutuarekin mintegi berezia Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapena Masterraren eremuan. UPV/EHUk, Lan Harremanen U.E.ren bidez, eta Bakea eta Duintasunak 2008tik dihardute lankidetzan. Hitzarmen berriaren zergatia aurrekariek adierazi duten gogobetza izan da. Hitzarmenak 12 hilabetez egongo da indarrean, eta urtez urte luzatu ahal izango da.

Lan Harremanen eta Lanaren Zientzien unibertsitate ikastegietako I. Estatuko Kongresua:

Irailaren 12an eta 13an Estatuko Lan Harremanen eta Lanaren Zientzien Unibertsitate Ikastegien Elkartek (ARELCIT) antolatutako Kongresu hori egingo da Valentziako Unibertsitateko Facultat de Ciències Socials ikastegian. Kongresuaren izenburua “Un nuevo escenario para las relaciones laborales” da, eta helburua ikuspegi anitzetik ezagutza topagunea erraztea da, non lan harremanen eta giza baliabideen eremuan lan egiten duten pertsonak ponentziak, komunikazioak, ikerkuntzak eta lanak aurkeztu ahal izango dituzten. Era

berean azken urteotan gizarte eta lan politikak jasan dituzten aldakuntza sakonen aurrean planteatzen diren erronkak, aldaketak eta arazo berriak aztertzeko, ikertzeko, eztabaidatzeko eta baloratzeko gunea ere ireki nahi da, aldakuntzok lan harremanen eredu edo sistemaren oinarritzko aldaketa ekarri baitute. Kongresuak lau analisi-ildotan jarriko du arreta -lan taldeen bidez-: 1. LT: Transformaciones en el modelo de Relaciones laborales español. 2. LT: Retos y nuevas prácticas en la gestión y dirección de recursos humanos. 3. LT: Políticas de empleo y mercados de trabajo: presente y futuro de las políticas de empleo. 4. LT: Docencia: metodologías y programación didáctica de las diferentes áreas y materias. Gestión académica. Eremu horretako irakasle eta ikertzaile guztiei gonbitea luzatzen zaie komunikazioak aurkezteko eta planteatutako diren gaien analisia egiteko. Informazioa (antolakuntza, lan taldeak, programa, epeak, prozedurak, aurkezpenak egiteko arauak, izen-ematea, etab.) Kongresuaren webgunean dago eskuragarri (<http://www.congresoarelcit.com>). Komunikazioak aurkezteko epea irekirik dago otsailaren 15etik apirilaren 1era arte.



XLVIII. AERELABO Kongresua. Relaciones Laborales como fórmula y método hacia el futuro:

Lan Harremanetako, Giza Baliabideetako / Gizarte Graduatuko ikasle eta ikasle ohien Estatuko Elkartek antolatutako, apirilaren 7tik 13ra arte Kongresu hori egingo da Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean (Gizarte eta Zuzenbidea Zientzien Campusean, Getafen). Programako ponentzien artean, honako hauek aipa daitezke, besteak beste: “La figura del Graduado Social en la Actualidad”, “Coaching y Técnicas de Empleo”, “PYMES y RR.HH.”, “Cooperativas de Trabajo Asociado”, “ERE, desde una perspectiva legislativa”, “Práctica en los Juzgados de lo Social en Madrid”, “Análisis de Conclusiones en el Colegio de Graduados Sociales de Madrid”, “Prevención de Riesgos Laborales”, “Cuestiones de Riesgos Laborales y Función a las Mutuas dentro de los Riesgos Laborales”, “Introducción a la Ley de la Jurisdicción Social”, “La Reforma Laboral un año después”, “Conciliación Familiar y Laboral” eta “Búsquedas de Empleo 2.0”. Horiez gain, mahai inguruak, AERELABO

Asanbladak, eta kultura-bidaiak ere agertzen dira programan. Informazio gehiago nahi izanez gero, bai eta izena emateko, honako helbide honetara idatzi behar da presidencia.aerelabo@gmail.com edo aerelabo.congreso@gmail.com, edo telefono hauetara deitu 679588559 (Tamara Argüelles) – 660 972 841 (Irene Rubio).

Eskolako bi ikasle ohi Osalaneko eta Emakundeko arduradun izendatu dituzte: Miren Izaskun Landaia Larizgoitia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendari izendatu dute (<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2013000596>). Bestetik, Izaskun Urien Azpitarte Osalaneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendari berria da (<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2013000625>).

Biek Eskolan ikasi zuten. Lehenengoak diplomatura 1991an amaitu zuen eta bigarrenak 1995ean. Izaskun Urien, gainera, hainbat urtez Eskolako irakaslea ere izan zen, zehazki, Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailekoa.



Enplegu Guneak: Martxoaren 6an, 11etan, Leioako enplegu gunerik berria inauguratu da. Gunea Apia Bidean dago kokaturik, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko behealdean. Enplegu Gune berriaren irekiera posible egin dute Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua), Europar Batasuneko Europako Gizarte Funtzak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak.

Praktikak Eskolan: Bigarren lauhilekoan bi ikaslek praktikak egingo dituzte Eskolako eremu ezberdinetan. Nerea Ereñaga eta Patricia Nuño dira. Nerea, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako graduatua da, eta bere ikasketak gure Eskolan burutu zituen. Orain Deustuko Unibertsitateko Emakumeen Bientziaren aurkako eremuan Parte Hartzea Master Ofiziala egiten ari da. Bere praktikak bi eremutan garatuko dira nagusiki. Batetik, generoaren ikuspuntutik interesa duten artikulatuak eta erreferentziak bilatuko ditu. Bestetik, kontuan izanik UPV/EHUK Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2010-2013) onartu zuela, eta Eskolak bere Plana 2002tik indarrean duela, bere zeregina gure Plana UPV/EHUKo Plan orokorrera egokitzea izango da. Patricia kasu, egun egokitze-ikastaroko ikaslea da. Bere Gradu Amaierako Lana bideratzeko asmoarekin, praktiketan egingo duena zera da: ekonomia solidarioaren eta gizarte ekonomiaren eremuko enpresei eta sareei gure langileek eta ikasleek eskaini diezazkieketen zerbitzuak eta sinergiak (aholkularitza, praktikak, Gradu eta Master Amaierako Lanak, etab.) zeintzuk izan daitezkeen aztertzea, haien beharrak kontuan izanik.

ESKOLAK ANTOLATUTAKO EDO BERMATUTAKO JARDUERAK



“Irakaskuntza-metodologia aktiboetarako prestakuntza-esperientziak: ikasgelarako balioespen eta erabilgarritasuna”: 2011/2012 ikasturteko koordinazio-txostenean ezarritako hobekuntza-helburuetako bat da ikastegiko irakasleek, ikasgelan irakaskuntza-metodologia aktiboak ezarri ahal izateko prestakuntza-ekintzetan duten parte hartzea areagotzea. Helburu hori lortzeko, koordinazio-taldeak erabaki zuen hobekuntzarako ekintza bat sustatzea, zeinaren bidez arlo horretako programaren batean parte hartu duten irakasleek euren esperientzia transmitituko duten, bai programari berari nola egunez egun ikasgelan duen erabilgarritasun eta emaitzei buruz ere. Horregatik, irakasle guztiei gonbitea egin zitzaion “Irakaskuntza-metodologia aktiboetarako prestakuntza-esperientziak: ikasgelarako balioespen eta erabilgarritasuna” izeneko mintegira joateko. Mintegia urtarrilaren 15ean egin zen Eskolako mintegietako batean. Hizlariak metodologia aktiboek buruzko prestakuntza-programetan parte hartu duten Eskolako irakasleak izan ziren: Elena Leifena, Madalen Goiria, Leire Escajedo eta Jesús Olea. Horiek bere esperientzia adierazi zuten bai parte hartutako prestakuntza-programaren inguruan nola metodologia aktiboa ikasgelan inplementatzeari dagokionean.

“Krisi soziala, Euskal Herri anitzean”: SOS Arrazakeriak y Guk - eztabaida guñeak, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren eta Lan Harremanen U.E.ren laguntzaz, “Krisi soziala, Euskal Herri anitzean” jardunaldia antolatu zuten, zeina otsailaren 20an egin zen, 16.00etatik aurrera Eskolako 04. ikasgelan. Jardunaldi horren bidez saiatu ziren erakusten zerk eragozten duen konfrontazio soziala eta zein soluzio diren hartarako, irtenbide zentrala “kontzientzia hartzea” delarik. Parte hartzaileak Fede García eta Mikel Mazkieran izan ziren, eta musikaz Txetxu Pardo arduratu zen (http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/noticia/18022013_crisis_social/eu_noticia/noticia.html).



“Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari” buruzko Mintegiak: Datorren apirilaren 18an (osteguna) “Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari” buruzko hiru mintegi egingo dira. Mintegiok Eskolan izango dira 16.00etatik 19.00etara 0.5 ikasgelan. Programa honako hau da: 1) Seminario sobre búsqueda bibliográfica y documental, 16.00etatik 17.00etara (Mikel Urrutikoetxea); 2) Seminario “Estrategias para la elaboración del TFG”, 17.00etatik 18.00etara (Iñaki Unzueta); 3) Seminario “Presentación oral y defensa eficaz del TFG”, 18.00etatik 19.00etara (Juan Hernández). Mintegiak bereziki 4. moduluko ikasleei daude zuzendurik, baina interesa duen edonor joan daiteke.

“Inklusioaren aldeko kultura baterantz, Ekinbide Publikoaren, Gizarte Zibilaren eta Merkatuaren bitartez”: Sartu Federazioak, bere 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean antolatutako jarduera hori, martxoaren 15ean egingo da, 10.30etatik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiko Areto Nagusian (María Díaz de Haro, 11, Bilbo). Jardunaldia Juan María Aburtok, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek eta Loli Martinek, Sartu Federazioko Lehendakariordeak aurkeztuko dute. Jarraian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Begoña Pérez Eransusek “Inklusiorako baliabideak: krisi betean dagoen sistemarako oinarritzeko elementuak” hitzaldia emango du. Aurkezpena Nando Consuegrak, Sartuko Koordinatzaile Nagusiak, hartuko du bere gain. Ondoren, Solasaldi bat egingo da. 13.00etan Gaztaroa Elkarteko Zubiak Eraikitzen Taldearen “Gizarte eta kultur dibertsitatea kudeatzea gizarteratze prozesuetan” liburua aurkeztuko du Marta Senzek, Sartu Gizarte Aholkularitza. Jardunaldia 13.45etan amaituko da. Izen-ematea honako helbide elektronikoan egin daiteke: konsultoria@zabaltzen.sartu.org, edo telefonoz 946 200 449 zenbakian (Marta Senz).

ELKARRIZKETAK



Ángel Elías, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendaria izateko hautagaia.

Galdera: Zer kontatuko zeniguke zure bizitza orokorrari buruz?

Erantzuna: Bilbon jaio nintzen 1954an. Ezkonduta nago eta 31 eta 32 urteko bi seme ditut. Zuzenbidean doktore naiz. Unibertsitatean lanean hasi aurretik abokatu moduan lan egin nuen 1977tik 1991ra arte. Azken urte horretan sartu nintzen UPV/EHuko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan, Enpresa

Zuzenbidea Sailean. Ordutik hemen jarraitzen dut, 2001-2005 urteen artean izan ezik, Eusko Jaurlaritzako Giza Gaietako Sailburuordea izan bainintzen. Salhaketa Elkartearen bultzatzailea izan nintzen eta sortu zenetik Batubide Elkartearen lehendakaria. Horrez gain, UPV/EHuko Gobernu Kontseiluko kide naiz, bai eta Bizkaiko Campuseko Batzarrekoa, hala nola, azken organo horretako Batzorde Iraunkorrekoa. Gainera 1994tik 2001era arte Eskolako zuzendariordea izan nintzen, eta azken lau urteotan zuzendaria.

G.: Orain arteko zure ibilbidea ikusita, argi dago gizarteko gaiez ardura handia duzula, eta horren adierazgarri da Eusko Jaurlaritzan Giza Gaietako ardura izana. Zein zen han zegokizun egin beharrekoa?

E.: Egia da aspalditik oso murgildurik egon naizela gizartean bazterturik daudenen alde lan egiten. Hori ezaguna da mundu horretan lanean dihardutenentzat, eta horregatik egin zidaten Sailburuorde izateko proposamena. Garai hartan, niri zegokidan Sailburuordetzak lau Zuzendaritza zituen: Gizarte Ongizatea, Drogamenpekotasuna, Emigrazioa eta Garapenerako Lankidetzak eta Laguntza.

G.: Jendeak dio Eskolan ordu asko sartzen dituzula. Hori horrela da?

E.: Lan astea eta asteburua bereizten ditut. Horregatik, astelehenetik ostiralera lanari dedikatzen diot denbora. Hala ere, horrek ez du esan nahi denbora guztian lanean nagoenik. Esate baterako, kiroldegira egunero joaten saiatzen naiz. Asteburuetan beste ekintza batzuetara zuzentzen dut denbora. Oro har kultura asko gustatzen zaidanez, ahal dudan ekitaldi guztietara joaten naiz, bereziki doakoetara. Bitxikeria gisa, aurten areto-dantza ikasten ari naiz.

G.: Lau urtez Eskolako zuzendaria izan zara, eta berriro zure burua aurkeztea erabaki duzu. Gainera zu zara hautagai bakarra. Zergatik hartu duzu erabaki hori?

E.: Egia esateko, azken lau urte hauetan oso gustura sentitu naiz lanean eta motibazio handia daukat horretan jarraitzeko. Gogoarekin amaitu dut nire agintaldia, zuzendaritza taldea osatzen duten pertsonak ere gogor lan egin baitute nirekin batera. Bestetik, egungo egoera zein den kontuan izanda, estrategikoki hurrengo lau urteak oso garrantzitsuak izango direla uste dut, unibertsitatean bai eta gizartean ere. 2012ko uztailaren 18ko Eskola Batzarrak adostutako lema dela eta (*“Aberastasunaren banaketa zuzen baten alde”*), konpromisoak bultzatzera lagundu nahi dugu.

G.: Zer nabarmenduko zenuke azken lau urteotan lortutako gauzen artetik?

E.: Punturik esanguratsuena, beharbada, Eskolako jendeak duen parte hartze orokorra da (batzordeetan, gradu amaierako lanetan, eta abarretan). Horrez gain, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua jarri eta sendotu da, eta horren ondorioz, ikasleen heziketa aintzatesteko atea ireki da. Bestetik, komunikazio tresnak indartu dira. Kanpo erlazioen eremuan, gure gaietan diharduten zenbait erakunderekin lankidetzak hitzarmenak sinatu ditugu, eta orain arte izandako esperientziak agerian jarri duenez, horrek gure lanean sakontzeko aukera ireki du. Azkenik, azpiegiturari dagokionez, 3. solairuaren eraldaketa aipatu behar da, non zuzendaritza, masterretako bulegoa, mintegiak, bulegoak, jantokiak eta ikasteko aretoa jarri diren.

G.: Zeintzuk dira zure ustez etorkizuneko erronkak?

E.: Lortutakoa hobetzen saiatzea; 2012ko uztailaren 18ko Eskola Batzarreko baloreak eta printzipioak unibertsitatean eta gizartean bultzatzea, benetan uste dugulako aberastasuna badagoela baina hobe banatu behar dela; pertsona guztiak Eskolan oso gustura egoteko gune egokia koherentziaz jorratzea; Eskola guztiona dela azpimarratzea eta horregatik estamentu guztien parte hartzea bultzatzea; Gradua dela eta, ikasleen praktikak eta mugikortasuna hobetzen jarraitzea.

G.: Unibertsitatean hauteskundeak egiten diren bakoitzean beti nabarmentzen da ikasleen parte hartze txikia. Zer mezu nahi diezu bidali martxoaren 13an botoa eman dezaten?

E.: Hauteskundeak sufragio unibertsalez egiten direnez, ikasleen parte hartzea oso garrantzitsua da, azken finean zuzendaria ikasleen ordezkaria ere baita. Horren inguruan zuzendaritza-talde honek ikasleenganako duen konpromisoa azpimarratu behar da. Esate baterako, Ikasleen Kontseiluko ordezkariekin 15ero bilerak egiten ditugu. Gainera, Eskolako eguneroko bizitzan ikasleen parte hartzea ezinbestekoa da batzordeetan, ate irekiko egunetan, etab. Bestetik, ikasleek ikastegian bertan praktikak egitea bideratu dugu. Horrez gain, ikasleen ekimenez ekitaldiren bat antolatzen den bakoitzean gure laguntza osoa izaten dute.

Marian Ourdi El Alaoui, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren 2. mailako euskara taldeko ikaslea.

Galdera: Zu marokoarra zara, baina orain dela 10 urtetik Eibarren bizi zara. Zer dela eta?

Erantzuna: Marokon bizi izan ginen artean, aitzak urruti joan behar zuen lan egitera eta oso denbora gutxi pasatzen zuen etxean. Hemen lan egiteko aukera izan zuen, eta hasiera batean bera bakarrik etorri zen. Hiru urte pasa eta gero, etxebizitza eta diru nahikoa lortu zituen, ama, nire hiru ahizpak, neba eta ni etorri ginen berarekin bizitzera.

G.: Beraz, Eibarrera 11 urte zenituela etorri zinen. Kontuan izanda gizarte, kultura eta, azken finean, toki berri batera etorri zinela, zer nolakoa izan zen integrazioa?

E.: Nahiko erraz moldatu ginen. Hasieratik hasi ginen euskaraz ikasten eta ezer ere ez genekienez, nire ahizpek eta nik eskolatik laguntza izan genuen. Beharbada integrazioan asko lagundu zigun ahizpak antzeko adinekoak izateak, arrazoi horregatik euskara ikastera elkarrekin joaten ginelako.

G.: Eibarren ikasketak amaitu eta gero unibertsitatera joatea erabaki zenuen. Zergatik aukeratu zenituen gure ikasketak?

E.: Zalantza handiak izan nituen. Nire lehenengo asmoa integrazioa edo filosofia ikastea zen, baina arrazoi ezberdinengatik ez zen posible izan. Nire lagun bati Lan Harremanak interesatzen zitzaizkion eta ate irekietako saiora etorri nintzen bera laguntzearren. Azkenean karrera interesgarria zela iruditu zitzaidan eta, bera Zuzenbidean matrikulatu zen arren, nik hemen gelditzea erabaki nuen.

G.: Zu kultura ezberdin batetik zatoz. Zeintzuk uste duzu direla hango eta hemengo ezberdintasunak gizartean, lanean, berdintasunean, eta abarrean?

E.: Hemen jendea asko ateratzen da kalera lagunekin, gure ohituran, aldiz, pertsonen arteko erlazioak gehiago dira senideen artean. Langileen eskubideen eremuan, Maroko gero eta irekiagoa da eta horren ondorioz langileek gero eta eskubide gehiago dituzte. Egia da lan kontratuak ez daudela edonon, enpresa handietan izan ezik, txikietan eta ertainetan jendeak kontraturik gabe lan egitea ohiko gauza baita. Soldatak hemen baino txikiagoak dira, baina kontuan izanda bizitza-maila era baxuagoa dela, jendeak diru gutxiago behar du bizitzeko. Emakumearen egoerari dagokionez, herri txikietan bereziki, emakumeek barneraturik dute zein den euren papera gizartean: ezkontzea, seme-alabak izatea eta etxean gelditzea. Hirietan egoera ez da bera, gero eta arruntagoa baita emakumeek etxetik kanpo lan egitea. Diskriminazioa dago? Bai, noski, baina emakumeek barneraturik dutenez, oro har, ez da eztabaidatzeko kontua.

G.: 2012ko hasieran arabiar eremuko zenbait Estatutan “arabiar udaberria” delako mugimendua jorratu zen. Zein da horri buruzko zure iritzia?

E.: Egia esateko, mugimenduaz entzun nuen arren, urruti nagoenez gaia gainetik baino ez dut ezagutu. Edonola, demokraziaren alde ematen diren urratsak ondo ikusten ditut, eta badirudi hori zela mugimenduaren helburua. Etxean gurasoei entzun izan diet Estatu horietako sistema politikoak zaharkiturik zeudela eta ezinbestekoa zela XXI. mendean gauzak beste modu batean egitea. Adineko jendeak, beharbada, konformismo handiagoa adierazten du beste gauzarik ez duelako ezagutu, baina generazio berriek politika eta gizartea aldatzea nahi dute, eta hori era oso positiboan baloratzen dut.

G.: Amaitzeko, zer da eguneroko bizitzan egiten duzuna Eskolan ikasteaz gain?

E.: Lagunekin irtetea gustatzen zait. Hemengo lagunak eta marokoarrak ditut. Planaren arabera, batzuekin ala besteekin ateratzen naiz. Erlijio kontuak direla eta, nik ez dut erretzen edo edaten, beraz, astebururako hemengo nire lagunaren plana tabernaz taberna ibiltzea bada, nahiago dut lagun marokoarrekin ateratzea. Guretzat gurasoenganako begirunea oso garrantzitsua da, eta ez nuke egingo nire gurasoen baloreen aurkako ezer ere. Bestetik, nire amak Eibarren denda bat duenez, nire denbora librean han egiten dut lan.

UPV/EHUko INTERESEKO AKORDIOAK ETA ERABAKIAK

[Ebazpena, 2012ko abenduaren 3koa, UPV/EHUko idazkaritza nagusiarena, UPV/EHUren ikastegien oinarritzko arautegiaren 15.2 artikuluan antzemandako errakuntzen zuzenketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezela agintzekoa](#)


[Erabakia, 2012ko abenduaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, Sailen Oinarritzko Arautegiari xedapen gehigarria eransteko dena](#)

[Erabakia, 2012ko abenduaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUren doktorego eskolen oinarritzko arautegia onartzeko dena](#)

[Ebazpena, 2013ko urtarrilaren 30koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, gobernu-taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko dena](#)

2013/2013 ikasturterako egutegi akademikoa: Ikasturte-hasiera (2013ko irailaren 9an); lehenengo lauhilekoa (2013ko irailaren 9tik abenduaren 20ra arte); neguko oporrak (2013ko abenduaren 21etik 2014ko urtarrilaren 6ra arte); lehenengo lauhilekoko ohiko deialdia (2014ko urtarrilaren 9tik 24ra arte); bigarren lauhilekoa (2014ko urtarrilaren 27tik maiatzaren 16ra arte); udaberriko oporrak (2014ko apirilaren 17tik 27ra arte); bigarren lauhilekoko ohiko deialdia (2014ko maiatzaren 19tik ekainaren 5era arte); ezohiko deialdia (2014ko ekainaren 19tik uztailaren 10era arte). Horrez gain, honako hauek ere jaiegun izango dira: ikastegi bakoitzeko zaindariaren eguna, udalerriko jaieguna, Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidegorako zehaztutakoak eta UPV/EHUren lan-egunetan zehaztutakoak.

Bizikletak aparkatzeko aparkalekua: Gure eraikinaren azpialdean, bertan sartzeko atearen ondoan, bost bizikleta aparkatzeko beharrezko egitura ezarri da.



INTERESEKO ARAU OROKORRAK

[Real Decreto-ley 1/2013, de 25 de enero, por el que se prorroga el programa de recualificación profesional de las personas que agoten su protección por desempleo y se adoptan otras medidas urgentes para el empleo y la protección social de las personas desempleadas](#)

[Real Decreto-ley 2/2013, de 1 de febrero, de medidas urgentes en el sistema eléctrico y en el sector financiero](#)

[Real Decreto-ley 3/2013, de 22 de febrero, por el que se modifica el régimen de las tasas en el ámbito de la Administración de Justicia y el sistema de asistencia jurídica gratuita](#)

[Real Decreto-ley 4/2013, de 22 de febrero, de medidas de apoyo al emprendedor y de estímulo del crecimiento y de la creación de empleo](#)



Boletín de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales

Número 20, febrero 2013



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

ÍNDICE

PRESENTACIÓN	11
PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS.....	11
POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA	11
RECURSOS.....	12
ALIANZAS	12
ALUMNADO	14
ACTIVIDADES ORGANIZADAS O AVALADAS POR LA ESCUELA	14
ENTREVISTAS	15
ACUERDOS Y DECISIONES DE INTERÉS DE LA UPV/EHU	17
NORMATIVA GENERAL DE INTERÉS.....	18

[Euskerako edukira joateko klikatu hemen](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PRESENTACIÓN

En el nº 20 del boletín electrónico de la Escuela se da cuenta de lo más destacado de los primeros meses de 2013. Destaca la celebración de elecciones para director del Centro el 13 de marzo. Junto con la información relativa a los acuerdos adoptados en la última Junta de Escuela, los cursos celebrados, los convenios suscritos, se informa sobre varios actos que está previsto se celebren a lo largo del año. En este período también se ha publicado un nuevo número de la revista *Lan Harremanak*. A partir de esta edición el boletín cambia de estructura. La razón de la supresión del apartado “Recursos y reseñas de interés” es que se va iniciar una nueva publicación dedicada exclusivamente a incorporar artículos y referencias *on line* sobre temas de interés social, laboral, económico, etc.

En la redacción de este boletín hemos tratado evitar el lenguaje sexista.

Si quieres enviar algo para que sea publicado envíalo aquí (nieves.arrese@ehu.es)

PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

La profesora Ainhoa Saitua nueva doctora: El pasado 4 de febrero, la profesora de nuestro Centro, Ainhoa Saitua, defendió su tesis doctoral titulada “*La información sobre recursos humanos en los informes de gestión de las empresas del IBEX-35 entre 2005 y 2009*” y dirigida por las/os doctoras/es Lorea Andicoechea Arondo y Eneka Albizu Gallastegi, ante la Comisión formada por las/os doctores José Ignacio Martínez Churriague, Amaia Maseda García, Begoña Giner Inchausti, José Antonio Laínez Gadea y Manuel Larrán Jorge. La calificación obtenida fue Apto Cum Laude. Zorionak Ainhoa!

